

| | |
|--|---|
| 2013KO IRAILAREN 25AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA. | ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 25 DE SEPTIEMBRE DE 2013. |
| ===== | ===== |
| <u>BERTARATUAK</u> | <u>ASISTENTES</u> |
| <u>LEHENDAKARIA</u> | <u>PRESIDENTE</u> |

Imanol Landa Jauregi jn.

| | |
|----------------------------|------------------------------------|
| <u>ALKATEORDEAK</u> | <u>TENIENTES DE ALCALDE</u> |
|----------------------------|------------------------------------|

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ/PNV)
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ/PNV)
Joseba Arregi Martínez (EAJ/PNV)
Ana Helguera Líbano (EAJ/PNV)

| | |
|---------------------------|--------------------------|
| <u>ZINEGOTZIAK</u> | <u>CONCEJALES</u> |
|---------------------------|--------------------------|

Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Kepa Miñambres Llona (EAJ/PNV)
Josu Loroño Goienetxe (EAJ/PNV)
Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ/PNV)
Marisa Arrue Bergareche (PP)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP)
Jesús Toca Toña (PP)
Raquel González Díez-Andino (PP)
Iñaki Gamero Delgado (PP)
Javier Ruiz Egaña (PP)
Jone Ruiz De Eguilaz Salazar (PP)
Fco. Javier Elorza Hormaeche (PP)
Ana Basilio Carnicer (PP)
Maitane Nerekan Umaran (BILDU)
Bingen Mirena Saitua Iruretagoiena (BILDU)
Miren Arantza Gutiérrez Paz (BILDU)
Luis José Almansa Rubio (PSE-EE (PSOE))

Agustín Ruiz Estivariz (PSE-EE (PSOE))

| | |
|--------------------------------|----------------------------------|
| <u>IDAZKARI NAGUSIA</u> | <u>SECRETARIO GENERAL</u> |
|--------------------------------|----------------------------------|

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako arratsaldeko bostetan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontuhartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las diecisiete horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Gai-zerrenda jorratzen hasi aurretik, Luis Almansa jaunak udan gertaturiko hainbat gertakariri buruzko adierazpenak egiteko esku hartzea eskatzen du.

Previamente a iniciar el tratamiento del orden del día, Luis Almansa solicita intervenir para realizar algunas manifestaciones respecto a algunos hechos acontecidos en el verano.

Alkateak ez du esku-hartze hori baimentzen eta, nahi izanez gero, galderen eta eskaeren atalera bideratzeko esaten dio.

El Alcalde le indica que no procede tal intervención y que en todo caso lo reconduzca al momento de ruegos y preguntas.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaidza honakoa izan da:

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

99.- 2013KO UZTAILAREN 24AN GETXOKO UDALBALTZAK EGINDAKO AURREKO OHIKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.

99.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 24 DE JULIO DE 2013.

2013ko uztailaren 24an Getxoko Udalbatzak egindako aurreko ohiko bilkuraren Akta onartu zen.

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 24 de

julio de 2013.

**LEHENDAKARITZA ETA GIZARTE
ZERBITZUAK**

**PRESIDENCIA Y SERVICIOS
SOCIALES**

**100.- EBAZPEN-PROPOSAMENA,
MARTXOAREN 23KO 1449/2011
DEKRETUAREN I, II ETA III.
ATALAK (TERRAZAK / KIROL
PORTUA) OFIZIOZ
BERRAZTERTZEKO
ESPEDIENTEAN.-**

**100.- PROPUESTA DE RESOLUCIÓN
EN EL EXPEDIENTE DE REVISIÓN
DE OFICIO DE LOS APARTADOS I, II
Y III DEL DECRETO 1449/2011 DE 23
DE MARZO (TERRAZAS/ PUERTO
DEPORTIVO).**

Proposamena irakurri ondoren, Luis Almansak esku hartzen du Getxo 2014rako kirolaren hiri izendatua izan delako pozten dela adieraziz eta zinegotzi eta langile guztiak zorionduz. Turismo-bulegoko langileak ere zoriontzen ditu Turismo-kalitateko Q ziurtagiriari eusteagatik. Halaber, amaitzeko, Luis Amallobieta udaltzaina ere zoriontzen du Belfasten egindako polizien eta su-hiltzaileen olimpiadetan arraun-modalitatean zilarrezko domina lortzeagatik.

Tras dar lectura a la propuesta interviene Luis Almansa manifestando que se alegra y felicita a todos los concejales y empleados por haber sido Getxo nombrada ciudad de deportes para el año 2014. También felicita a los trabajadores y trabajadoras de la oficina de Turismo por haber mantenido la Q de Calidad Turística. Asimismo, finalmente felicita también al Agente de la Policía Local Luis Amallobieta por haber logrado la medalla de plata en remo en las olimpiadas de policías y bomberos celebradas en Belfast.

Eztabaidagai den gaiari dagokionez, espedientearen edukia laburtzen du, bertan jasota dauden txostenak zehaztuz, zeinak, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenarekin amaitzen diren. Administratiboki barregarri geratu direla deritzo eta Gobernu-Taldearen ardura dela Udaleko Arlo desberdinak koordinatzea.

Respecto al tema de debate resume el contenido del expediente explicitando los informes obrantes en el mismo que finalizan con el dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi. Opina que administrativamente se ha hecho el ridículo y que es responsabilidad del Equipo de Gobierno coordinar los diferentes departamentos municipales.

Alkate jaunak esku hartzen du gai honetan zegokion txandaz hasierako zorion-agurrak adierazteko baliatzea ez dela egokia esateko eta hurrengoetan eskaeren eta galderen atalean egiteko eskatzen dio, bestela, hitza kendu beharrean aurkituko delako.

Interviene el señor Alcalde para indicar que no es correcto haber aprovechado el turno que le correspondía en esta cuestión para plantear las felicitaciones manifestadas al inicio de su intervención, y pide que para la próxima ocasión lo realice en el turno de ruegos y preguntas o

se verá obligado a retirarle el uso de la palabra.

Keltse Eiguren andreak esku hartzen du Lehendakartzaren Informazio-Batzordean gaia tekniko-juridikotzat kalifikatzen duen txostena sakon azaldu zela adierazteko. Administrazio-egintzak ofizioz berrikusteko araututako administrazio-bidea jarraitu dela azpimarratzen du eta erabakia hartzea Osoko Bilkurari dagokiola adierazten du. Arloen baitan interpretazio-irizpide desberdinak dituzten langileria dagoela aitortzen du. Kasu honetan, interpretazio hedagarria egin nahi dela adierazten du eta, beraz, ez deritzo barregarri geratu direnik.

Keltse Eiguren interviene para indicar que en la Comisión Informativa de Presidencia se explicó a fondo el expediente que califica de una cuestión técnico-jurídica. Incide en que se ha seguido el cauce administrativo regulado para la revisión de oficio de los actos administrativos y que le corresponde al Pleno tomar la decisión. Reconoce que dentro de los departamentos hay personal con diferentes criterios interpretativos, en este caso se pretende atajar una interpretación expansiva por lo que no estima que se haya hecho el ridículo.

Jesus Toca jaunak adierazten du dekretua sinatu zenean hura zuzenbidearekin bat zetorrela uste zela eta horrelako jarduerak ziurgabetasuna eragiten dutela deritzo; beraz, Talde Popularra abstenitu egingo da. Amaitzen du adieraziz, Kirol-Portuko inguru hori Terrazen Ordenantzari dagokionez gune berezia dela eta dagoen desorden hori zuzentzeko neurriak hartzea beharrezkoa dela.

Jesús Toca manifiesta que cuando se firmo el decreto se suponía que se ajustaba a derecho y cree que este tipo de actuaciones generan incertidumbre por lo que el Grupo Popular se va a abstener. Finaliza manifestando que la zona del Puerto Deportivo es un espacio singular a afectos de la Ordenanza de Terrazas y que es necesario tomar medidas para corregir el desorden existente

Luis Almansa jaunak proposamenari buruz esanikoa berresten du eta bere esku-hartzearen hasierako edukari buruz alkateak eginiko adierazpenak onartzen ditu.

Luis Almansa se ratifica en lo manifestado sobre la propuesta y asume las indicaciones del Alcalde respecto al contenido del inicio de su intervención.

Keltse Eiguren andreak adierazten du Gobernu-Taldeak Kirol-portuaren egoera hobetzeko lanean diharduela eta, ofiziozko berrikuspenari dagokionez, espedientean dagokion araudia aplikatzera mugatu direla eta Aholku-Batzorde Juridikoak berrikuspen-espedientea abalatzeko duela berresten du.

Keltse Eiguren manifiesta que el Equipo de Gobierno está trabajando para mejorar la situación del Puerto Deportivo y respecto a la revisión de oficio, se ratifica en que en el expediente se ha limitado a aplicar la normativa correspondiente y la Comisión Jurídica Asesora ha avalado el expediente de revisión.

Bozkatu egiten da eta onartuta geratzen EAJ-PNV Taldearen aldeko 10 boto eta PP, BILDU eta PSE-EE Taldeen 14 abstentzio-

Sometida a votación es aprobada al obtener 10 votos a favor: PNV, 14 abstenciones PP, BILDU, PSE-EE.

boto lortzean.

Ondorioz eta Lehendakaritzako eta Gizarte-Zerbitzuetako Informazio-Batzordearen proposamenez honako hau erabaki zen:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Infomativa de Presidencia y Servicios Sociales se acordó:

LEHENA: martxoaren 23ko 1449/2011 Alkatetza Dekretuko I, II eta III atalen deuseztasuna aitortzea, aginpiderik gabeko organoak emanak izateagatik eta legeak ezarritako prozedura saihestegatik. Hona hemen hitzez hitz horren edukia:

PRIMERO: Declarar la nulidad de los apartados I, II y III del Decreto de la Alcaldía nº 1449/2011, de 23 de marzo, por dictarse por órgano manifiestamente incompetente y por prescindir del procedimiento legalmente establecido, cuyo contenido es del siguiente tenor literal:

I: Terrazak Instalatzeari buruzko prozedura administratiboa, Erabilera Publikoko Espazioetan Terraza eta Barrak Instalatzea Arautzen duen Ordenantzaren bidez arautuko da eskusiboki, eta ez hirigintzako legerian xedatzen denaren arabera.

I: El procedimiento administrativo referente a la Instalación de Terrazas se registrá única y exclusivamente por lo establecido en la Ordenanza Reguladora de la Instalación de Terrazas y Barras Exteriores en Espacios de Uso Público y no por lo prevenido en la legislación urbanística.

II: Aipatu Ordenantza interpretatzeko irizpideak, honako Ebazpenaren ondorioetan jasoko dira.

II: Los criterios interpretativos de la citada Ordenanza serán los reseñados en las consideraciones indicadas en la presente Resolución.

III: Ordenantza hau indarrean sartzen denetik, Hirigintzako Legeriaren arabera izapidetutako Terrazei era mahaitxoei dagozkien administrazio-prozedurak baliogabetzea eta ondorioz nahiz baliorik gabe uztea.

III: Anular y dejar sin efecto ni valor alguno los procedimientos administrativos referidos a terrazas y veladores tramitados conforme a la Legislación Urbanística a partir de la entrada en vigor de la presente Ordenanza.

BIGARRENA: Honako erabakia Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari helaraztea, azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 30.2 artikuluan xedatutakoa betez.

SEGUNDO: Dar traslado del presente acuerdo a la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, en cumplimiento de lo dispuesto en el art. 30.2 de la Ley 9/2004, de 24 de noviembre.

HIRUGARRENA: Interesdunei honako erabakiaren berri ematea.

TERCERO: Notificar este acuerdo a los interesados.

OGASUNA, KONTUAK, HACIENDA, CUENTAS,

EKONOMIA-SUSTAPENA, GIZA
BALIABIDEAK, HEZKUNTZA,
GAZTERIA ETA EUSKARA

PROMOCIÓN ECONÓMICA,
RECURSOS HUMANOS,
EDUCACIÓN, JUVENTUD Y
EUSKERA

101.- CESP, SA, ENPRESAK, KALEEN
GARBIKETA ETA HIRI-HONDAKIN
SOLIDOEN BILKETA EGITEN
DUENAK, UZTAIL-AGORRILETAN
EGINDAKO ZERBITZUENGATIK
JAILKITAKO FAKTURAK
ONESTEKO PROPOSAMENA.

101.- PROPUESTA DE APROBACIÓN
DE FACTURAS
CORRESPONDIENTES A LOS MESES
DE JULIO Y AGOSTO POR LOS
SERVICIOS PRESTADOS POR LA
EMPRESA CESP, S.A. DE LIMIEZA
VIARIA Y RECOGIDA DE RESIDUOS
SÓLIDOS URBANOS.

Proposamena irakurri ondoren, Luis Almansa jaunak esku hartzen du adieraziz, Talde Sozialistak bere onespena emango duela faktura horiek nahitaez eskaini beharreko oinarrizko zerbitzu bati dagozkiolako eta, gainera, eraginkorki gauzatutako lanak direlako; beraz, Udaleko Kontu-Hartzaitzaren txostenean adierazi bezala ordainduko dira. Gobernu-Taldeak kritikatu du zerbitzu hori esleitzeko izapide-epeak ez aurreikusteagatik, esleipenean izandako atzerapenak Udaleko diru-kutxa zamatzen baitu ekonomikoagoa dela aurreikusten den esleipen berria indarrean ez sartzean.

Tras dar lectura a la propuesta interviene Luis Almansa manifestando que el Grupo Socialista va a dar la conformidad porque se corresponden las facturas a un servicio básico de obligada prestación, además de tratarse de trabajos efectivamente realizados y que procede el abono tal y como se recoge en el informe de la Intervención municipal. Critica al Equipo de Gobierno por no haber previsto los plazos de tramitación de la adjudicación del servicio ya que el retraso en la adjudicación graba las arcas municipales al no entrar en vigor la nueva adjudicación que se presume más económica.

Eduardo Andrade jaunak adierazten du Talde Popularrak aurka bozkaturako duela proposamenaren xede bakarra Gobernu-Taldearen ezgaitasuna eta arduragabekeria ordezkatzeko baita. Iraungi den kontratua 2003an 8 urterako esleitu zela gogorarazten du eta bi luzapenen objektu izan zitekeela. Gobernu-Taldeak luzapen horiek Osoko Bilkurari aurkeztu gabe gauzatu ditu eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak behin-behineko txostenean adierazi duenaren arabera, ez daude zuzenbidera egokituta. Luzapenek pleguen prestaketa atzeratu dutela deritzo. Talde Sozialistak Gobernu-Taldearen aitzakiak onartzea ulertzen du

Eduardo Andrade manifiesta que el Grupo Popular va a votar en contra ya que la propuesta tiene como único objetivo suplir la incompetencia y negligencia del Equipo de Gobierno. Recuerda que el contrato que se ha extinguido se adjudicó en el año 2003 por un periodo de 8 años, con una posibilidad de dos prórrogas, prórrogas que el Equipo de Gobierno las ha materializado sin presentarlas al Pleno y que en opinión del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas en su informe provisional, no son ajustadas a Derecho. Estima que las prórrogas han retrasado la preparación de los pliegos. Entiende que el Grupo Socialista admita las excusas del

baina ezin du ulertu gai honetan BILDU Taldea EAJ-PNV Taldearen defendatzaile bihurtzea. Gobernu-Taldea CESP, S.A. enpresarekin harremanetan jarri dela, zerbitzua legezkoa ez den modu batean eskaintzen jarrai dezan, berresten dute. Gobernu-Taldeak kontratu berria esleitu bitartean CESP, S.A. enpresak zerbitzua eskaintzen jarrai dezala planteatzea kritikatzan dute; horretarako epea zehaztugabe dagoela kontuan hartuz. Gobernu-Taldeak dioen gisan, kontratu berriak 2 milioiko aurrezpena ekarriko du egungo fakturazioarekiko. Beraz, bi urteko luzapena gehi kontratuaren esleipen berria egin bitartean igaroko den denborari dagokiona gehi BILDU taldearen eskaeren ondorioz plegua milioi eta erdi gehiago garestitu denez, Udaleko diru-kutxarentzako demeritua 7 milioi eta erdikoa izango da, azkenean herritarrek ordaindu behar dituztenak. TAO kontratuarekin ere gauza berdina gertatu dela gogorazten du; alabaina, ondoren, lizitazio berria ez zaio Osoko Bilkurari aurkeztu, talde politikoen debatea ekiditeko; eta kasu gehiagotan ere egoera berdina errepikatu da.

Bingen Saitua jaunak BILDU Taldearen izenean adierazten du higuina sortzen diela Andrade jaunaren adierazpenek, BILDU Taldeak ez duelako gai honi buruzko bere jarrera azaldu eta, jada, jarrera zehatz bat esleitu dietelako eta EAJ-PNV taldearekin egiazkoa ez den itun bat egin dutela baieztatzen dutelako.

Joseba Arregik, Gobernu-Taldearen izenean, adierazten du kontratua 2013ko uztailean amaitu zela, espedientea 2011ko abenduan hasi zela eta Pleguak 2012ko maiatzeko Hirigintza-Batzordean aurkeztu zirela, talde politikoei beren proposamenak aurkezteko bi hilabeteko epea emanez, Udalarentzako kontratu garrantzitsua eta konplexua dela kontuan

Equipo de Gobierno pero no entiende que BILDU se convierta en defensor del PNV en este tema. Se ratifican que el Equipo de Gobierno ha contactado con CESP, S.A. para que siga prestando el servicio de manera ilegal. Critica que el Equipo de Gobierno plantee que continúe CESP, S.A. hasta que se adjudique el nuevo contrato; lo cual es un plazo incierto. Estima que el nuevo contrato supondría, tal y como manifiesta el Equipo de Gobierno, un ahorro de 2 millones sobre la facturación actual lo que con dos años de prórroga mas el que se pasará hasta la nueva adjudicación del contrato mas el millón y medio que se ha encarecido el pliego por las demandas de BILDU supone un demérito para las arcas municipales de 7 millones y medio de euros que al final lo tienen que pagar los ciudadanos. Recuerda que esta misma situación se ha producido con el contrato de la OTA, si bien, posteriormente la nueva licitación no se ha presentado al Pleno evitando el debate de los grupos políticos, situación también que se da en mas casos.

Bingen Saitua en nombre de BILDU manifiesta que siente asco por las manifestaciones de Andrade ya que BILDU no ha manifestado su postura en esta cuestión y ya les asigna una posición concreta y se afirma un falso pacto con el PNV.

Joseba Arregi, indica en nombre del Equipo de Gobierno, que el contrato finalizó en julio de 2013 y el expediente se inició en diciembre del 2011 presentándose ya en la Comisión de Urbanismo los pliegos en mayo de 2012 dándose un plazo de dos meses a los Grupos para que presentaran propuestas teniendo en cuenta que se trata del contrato más

hartuta. Proposamenak ikusita, talde politikoekin negoziazio-prozesuari ekin zitzaion eta PP Taldeak egindako 16 proposamenetatik 12 onartu ziren, hala eta guztiz ere plegua izapidetzearen alde agertu ez bazen ere. 2012ko uztailean Talde Popularrarekin akordio batera iristear egon zirela gogorarazten du, azkenean akordiora iritsi ez baziren ere. Gobernu-Taldeak BILDU taldearekin nahiz Talde Sozialistarekin plegu teknikoek dagokienez akordio batera iritsi zela aitortzen du eta akordio horren harian talde horiek izapidetze horren aurka ez agertzea ahalbidedutako zela; eta 2012ko abenduan espedienteari hasiera ematea onartu zela. Data horretatik aurrera, Talde Popularrak espedientearen egoeraren berri izan du eta Rajoy-ren Gobernuak zerbitzu publikoak, langileen kontratazioak eta abar murrizteko hartutako erabakiek izapidetzean ziurgabetasuna eragin dutela eta espedientea luzatzea eragin dutela gogorarazten du. Amaitzen du, adieraziz, espediente hori Kontratazio-Mahaian dagoela, Udaleko talde politiko guztiek osatzen dutena, eta, beraz, horren izapidetzea Osoko Bilkura osatzen duten talde guztien ardura dela.

Eduardo Andrade jaunak berriro ere Gobernu Taldeak gauzak berandu eta gaizki egiten dituela esaten du, pleguak 2012ko abenduan onartuta baitaude. TAOren kasuan ere antzeko jarduerak izan zirela gogoratzen du, gauza bera ari dela gertatzen lorezaintza-kontratuarekin, hondartzetako establezimenduekin eta abar. Hondakinen bilketa eta bideen garbiketa zerbitzuaren esleipenean atzerapenak Getxoko herritarrek jasaten duten kalte ekonomikoa dakarrela eta Gobernu-Taldearen erantzukizuna dela azpimarratuz amaitzen du.

importante y complejo del Ayuntamiento. A la vista de las propuestas, se inició un proceso de negociación con los Grupos políticos en el cual se admitieron 12 de las 16 propuestas del PP sin que por ello manifestara su posición favorable a la tramitación del pliego. Recuerda que en julio del 2012 se estuvo a punto de realizar un acuerdo con el Grupo Popular que luego no fue posible. Reconoce que el Equipo de Gobierno llegó a un acuerdo sobre los pliegos técnicos tanto con BILDU como con el Grupo Socialista, acuerdo que posibilitaba la no oposición de estos grupos para su tramitación y en diciembre de 2012 se aprobó el inicio del expediente. A partir de esa fecha el Grupo Popular conoce la situación del expediente y recuerda que las decisiones adoptadas por el Gobierno de Rajoy en orden a reducir los servicios públicos, las contrataciones de personal, etc ha generado inseguridad en la tramitación que ha supuesto también un alargamiento del expediente. Finaliza manifestando que este expediente está en la Mesa de Contratación compuesta por todos los grupos políticos del Ayuntamiento y por tanto es responsabilidad de todos los grupos que componen el Pleno la tramitación del mismo.

Eduardo Andrade insiste en que el Equipo de Gobierno hace las cosas tarde y mal ya que los pliegos se han aprobado en diciembre de 2012. Recuerda actuaciones similares en la OTA, que lo mismo está pasando con el contrato de jardinería, los establecimiento de las playas, etc. Finaliza insistiendo que el retraso en la adjudicación del servicio de recogida de residuos y de limpieza viaria supone un perjuicio económico que sufren los ciudadanos de Getxo y es responsabilidad del Equipo de Gobierno.

Bingen Saitua jaunak adierazten du BILDU taldeak ez duela inolako akordiorik EAJ-PNV taldearekin, 2012an OHZ puntu bat igotzeko eta, trukean, gehien kaltetuenei hobari batzuk emateko eta gama handiko ibilgailuei 2013an zerga handitzeko hartutako akordioak izan ezik.

Proposamenak Gobernu-Taldeak kontratu horretan izandako kudeaketa txarra frogatzen duela deritzo; izan ere, behin eskaintza aurkeztutakoan kontratu dira Udaleko teknikariek ezin dutela horien eduki teknikoak buruzko txostenik egin lan gehiegi dutelako eta azpi-kontrataziora jo behar izan dute eta, horrek, bizilagunentzako kostu handiagoa eta espedientea amaitzerako orduan atzerapena dakartza. BILDU taldea ez dago ados azpi-kontratazio horrekin. Proposamen horretan, batetik, Gobernu-Taldeak eginiko txapuz dagoela deritzo, baina, bestetik, langileek eskaintako zerbitzuagatik duten kobratzeko eskubidea dago, beraz, abstenitu egingo dira.

Joseba Arregi jaunak azpimarratzen du Gobernu-Taldearen asmoa pleguak 2012aren hasieran aurkeztea zela, baina Talde Popularraren oposaketarekin egin zutela topo, nahiz eta horrelako pleguak beste zenbait udaletan Talde Popularrak berak sustatuak edo babestuak izaten diren. Talde Popularrak guztiari beti ezetz esan ohi diola kritikatzeko du, baita egindako lana ordaintzeari ere. Kontrataziorako administrazio-prozedura errepatatzen du eta garantista gisa kalifikatzen du; horrek administrazio-urrats bakoitzaren ondoren errekurritzeko epeak ematea dakar eta prozedura honetako Kontratazio-Mahaiak, non, Udaleko talde politiko guztiak dauden, akordioak inolako aurkako botorik gabe onartu zituela gogorarazten du. Amaitzen

Bingen Saitua manifiesta que BILDU no tiene ningún acuerdo con el PNV salvo los acuerdos que tuvieron para subir en un punto el IBI del año 2012 y a cambio del mismo conceder unas bonificaciones para los más desfavorecidos y para incrementar en el 2013 el impuesto de vehículos a los de gama alta.

Opina que la propuesta demuestra la mala gestión del Equipo de Gobierno en este contrato ya que una vez presentada la oferta se han dado cuenta que los técnicos municipales no podían informar los contenidos técnicos de la misma por exceso de trabajo y han tenido que acudir a una subcontratación que supone más coste para los vecinos y un aplazamiento de la finalización del expediente, subcontratación con la cual BILDU no está de acuerdo. Estima que en esta propuesta por un lado está la chapuza del Equipo de Gobierno pero por otro lado está el derecho de los trabajadores a cobrar los servicios prestados, por lo que se abstendrán.

Joseba Arregi insiste en que la idea del Equipo de Gobierno era presentar los pliegos a primeros del año 2012 pero se encontró con la oposición del Grupo Popular pese a que éste tipo de pliegos son promovidos o apoyados por el Grupo Popular en otros ayuntamientos. Critica que el Grupo Popular siempre dice no a todo, incluso a abonar el trabajo realizado. Repasa el procedimiento administrativo de contratación que califica de garantista y que ello supone el otorgamiento de plazos para recurrir después de cada paso administrativo y recuerda que la Mesa de Contratación de este procedimiento, en la que están incorporados todos los grupos políticos del Ayuntamiento, adoptó todos los acuerdos sin ningún voto en contra. Finaliza manifestando que en las dos

du adieraziz, Talde Popularrak Gobernu-Taldeari bi gai estrategikotan soilik eman diola bere babesa, Getxo Antzokiaren eta Romoko Kultur Etxearen gaitan, proiektu horiek gauzatu ahal izateko hirigintza-aldaketak ahalbidetuz.

únicas cuestiones estratégicas que el Grupo Popular ha apoyado al Equipo de Gobierno ha sido el Getxo Antzokia y la Kultur Etxea de Romo, posibilitando las modificaciones urbanísticas para la ejecución de dichos proyectos.

Eduardo Andrade jaunak Gobernu-Taldea prozedurarekin berandu hasi zela berresten du, 2011. urtean hasi baitzitekeen. Pleguak Osoko Bilkurari beste erremediorik ez duelako aurkezten dizkiola uste du, ahal izanez gero, Osoko Bilkuraren eremutik aterako bailituzkete beste kontratu askorekin egin duten gisan. Kontratuen arduradunek mugaegunak apuntatzeko agenda bat oparituko duela esanez amaitzen du. Zerbitzu hori eskaintzen jarraitzeaz CESPÁ, S.A. enpresa eta ez beste bat zergatik arduratzen den galdetuz amaitzen du.

Eduardo Andrade se ratifica en que el Equipo de Gobierno comenzó tarde el procedimiento ya que podía haber iniciado en el año 2011. Estima que presenta los pliegos al Pleno porque no tiene otro remedio ya que si pudieran los sustraerían del ámbito del Pleno como lo han hecho con otros muchos contratos. Finaliza indicando que va a regalar una agenda para que por parte de los responsables de los contratos se apunten los vencimiento de los mismos. Finaliza preguntándose por que se sigue encargándose la realización del servicio a CESPÁ, S.A. y no a otra empresa.

Bingen Saitua jaunak adierazten du BILDU taldea Gobernu-Taldearekin akordio batera iritsi zela baldintzen pleguan horren aurka ez agertzeko gutxiengo nahiko batzuk finkatuz, hots, hondakinen %50a birziklatzea; baina hori ez da BILDU taldearen proposamena, beraiena gai hauetan aurreratuagoa izango bailitzateke.

Bingen Saitua manifiesta que BILDU llegó con el Equipo de Gobierno a un acuerdo en el pliego de condiciones, un acuerdo de mínimos suficiente para no oponerse al mismo y que supone garantizar el reciclaje en un 50% de los residuos, pero esa no es la propuesta de BILDU que sería más avanzada en estas cuestiones.

Proposamena bozkatu eta onartu egiten da EAJ-PNV eta PSE-EE Taldeen aldeko 12 boto, PP Taldearen aurkako 9 boto eta BILDU Taldearen 3 abstentzio-boto lortzean.

Sometida la propuesta a votación es aprobada al obtener 12 votos a favor PNV, PSE-EE, 9 votos en contra PP, 3 abstenciones BILDU.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Sustapen Ekonomiko, Giza Baliabide, Gazteri eta Euskara Arloetako Informazio-Batzordearen proposamenez honako proposamen hau onartu zen:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara se aprobó siguiente propuesta:

CESPA, S.A. (A82741067) enpresak Aprobare la siguiente relación de facturas egindako ondorengo faktura zerrenda emitidas por la empresa CESPA, S.A. onartzea, jarraian azaltzen den (A82741067), con el detalle que figura a xehetasunarekin, eta dagokion obligazioa continuación, reconociendo la aitortzea, ordainketa egiteko agindua correspondiente obligación, para su emateko. posterior ordenación de pago.

| Faktura zk. | Fakturaren data | Kontzeptua | Zenbatekoa (BEZ barne) |
|----------------|-----------------|---|------------------------|
| 13GX00175 | 31/07/2013 | Oinarrizko Plan Orokorra I. Fasea, Aldatutako Bariantea | 534.863,10 |
| 13GX00174 | 31/07/2013 | Getxo udalerriko ikastetxeetako patio publikoak garbitzea | 17.736,66 |
| 13GX00176 | 31/07/2013 | Getxo udalerriko ibaien ibilguak eta ezpondak garbitzea | 9.635,43 |
| 13GX00178 | 31/07/2013 | Hondakin solidoen gaikako bilketa | 58.743,87 |
| 13GX00177 | 31/07/2013 | Hiri-hondakin solidoak biltzea eta garraiatzea | 163.613,20 |
| 13GX00180 | 31/07/2013 | Pintadak garbitzea | 17.244,21 |
| 13GX00181 | 31/07/2013 | II. Fasea: Ingurumen-konplexuaren ustiapena | 67.606,41 |
| 13GX00173 | 31/07/2013 | Ekintza Zehatzetarako Lan-taldea | 44.030,11 |
| 13GX00172 | 31/07/2013 | 2. Ingurumeneko Ikasgela ustiatzea | 17.634,30 |
| 13GX00189 | 31/08/2013 | Oinarrizko Plan Orokorra I. Fasea, Aldatutako Bariantea | 534.863,10 |
| 13GX00188 | 31/08/2013 | Getxo udalerriko ikastetxeetako patio publikoen garbiketa | 17.736,66 |
| 13GX00190 | 31/08/2013 | Getxo udalerriko ibaien ibilguak eta ezpondak garbitzea | 9.635,43 |
| 13GX00192 | 31/08/2013 | Hondakin solidoen gaikako bilketa | 58.743,87 |
| 13GX00191 | 31/08/2013 | Hiri-hondakin solidoak biltzea eta garraiatzea | 163.613,20 |
| 13GX00202 | 31/08/2013 | Pintadak garbitzea | 10.435,85 |
| 13GX00203 | 02/09/2013 | Fase II: Ingurumen-konplexuaren ustiapena | 66.355,23 |
| 13GX00187 | 31/08/2013 | Ekintza Zehatzetarako Lan-taldea | 44.030,11 |
| Guztira | | | 1.836.520,74 |

| Nº factura | Fecha factura | Concepto | Importe (iva incluido) |
|-----------------------|---------------|--|------------------------|
| 13GX00175 | 31/07/2013 | Plan Básico General Fase I Variante Modificada | 534.863,10 |
| 13GX00174 | 31/07/2013 | Limpieza viaria patios públicos colegios municipio Getxo | 17.736,66 |
| 13GX00176 | 31/07/2013 | Limpieza cauces y taludes de ríos municipio Getxo | 9.635,43 |
| 13GX00178 | 31/07/2013 | Recogida selectiva de residuos sólidos | 58.743,87 |
| 13GX00177 | 31/07/2013 | Recogida y transporte de residuos sólidos urbanos | 163.613,20 |
| 13GX00180 | 31/07/2013 | Limpieza de pintadas | 17.244,21 |
| 13GX00181 | 31/07/2013 | Fase II: Explotación Complejo Medioambiental | 67.606,41 |
| 13GX00173 | 31/07/2013 | Brigada de Acción Puntual | 44.030,11 |
| 13GX00172 | 31/07/2013 | 2. Explotación del Aula Medio Ambiental | 17.634,30 |
| 13GX00189 | 31/08/2013 | Plan Básico General Fase I Variante Modificada | 534.863,10 |
| 13GX00188 | 31/08/2013 | Limpieza viaria patios públicos colegios municipio Getxo | 17.736,66 |
| 13GX00190 | 31/08/2013 | Limpieza cauces y taludes de ríos municipio Getxo | 9.635,43 |
| 13GX00192 | 31/08/2013 | Recogida selectiva de residuos sólidos | 58.743,87 |
| 13GX00191 | 31/08/2013 | Recogida y transporte de residuos sólidos urbanos | 163.613,20 |
| 13GX00202 | 31/08/2013 | Limpieza de pintadas | 10.435,85 |
| 13GX00203 | 02/09/2013 | Fase II: Explotación Complejo Medioambiental | 66.355,23 |
| 13GX00187 | 31/08/2013 | Brigada de Acción Puntual | 44.030,11 |
| total facturas | | | 1.836.520,74 |

102.- AURREKONTUAREN
ALDAKETAK FINANTZATZEKO
ASMOZ 2012KO UDAL
AURREKONTUAREN
LIKIDAZIOAREKIN LORTUTAKO
ALTXORTEGIKO GELDIKINA
GASTU OROKORRETARAKO
ERABILTZEA DELA ETA,
FINANTZA-
IRAUNKORTASUNAREN 4/2013
TXOSTENAREN BERRI EMATEA.

Ogasuna, Kontuetako, Ekonomia, Sustapeneko, Giza Baliabideetako, Gazteria eta Euskarako Informazio Batzordeak proposatuta, Osoko Bilkura Aurrekontuaren aldagetak finantzatzeko diruzaintzako geldikinak erabiltzearekin lotuta, finantza-iraunkortasunari buruz Udaleko Kontu-hartzaileak egindako irailaren 10eko 4/2013 zenbakidun txostenaren edukiaren jakitun geratzen da.

4/2013 zenbakidun txosten hori Bizkaiko Foru Aldundiaren Lehendakaritza Sailari bidaltzea, Osoko Bilkuraren batzarreko aktarekin eta euskarri gisa balio duen gainerako dokumentazioarekin batera.

103.- HAINBAT DEKRETUREN BERRI
EMATEA: AURREKONTUA
GEHIGARRIZKO KREDITUZ
BALIATUTA ALDARAZI.

Dekretuen berri eman da, eta Ogasuna, Kontuetako, Ekonomia, Sustapeneko, Giza Baliabideetako, Gazteria eta Euskarako Informazio Batzordeak proposatuta, Osoko Bilkura kreditu gehigarrien bidezko aurrekontuaren aldagetari buruzko dekretu hauen jakinaren gainean geratzen da:

3497/2013 zenbakidun Dekretua

102.- DACIÓN DE CUENTA DEL
INFORME N° 4/2013 DE
SOSTENIBILIDAD FINANCIERA EN
RELACIÓN CON LA UTILIZACIÓN
DEL REMANENTE DE TESORERÍA
PARA GASTOS GENERALES
OBTENIDO EN LA LIQUIDACIÓN
DEL PRESUPUESTO MUNICIPAL
2012 PARA FINANCIAR
MODIFICACIONES
PRESUPUESTARIAS.

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, el Pleno quedo enterado del contenido del informe de la Intervención Municipal N° 4/2013, de 10 de septiembre, sobre sostenibilidad financiera en relación con la utilización del remanente de tesorería para financiar modificaciones presupuestarias.

Remitir dicho informe N° 4/2013, junto al acta de la sesión del Pleno y demás documentación que sirva de soporte, al Departamento de Presidencia de la Diputación Foral de Bizkaia.

103.- DACIÓN DE CUENTA DE
DIVERSOS DECRETOS DE
MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA
MEDIANTE CRÉDITO ADICIONAL.

Dada cuenta de los Decretos, y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara el Pleno queda enterado de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante crédito adicional:

Decreto n° 3497/2013 por un importe de

| | |
|---|--|
| 106.915,98 euroko zenbatekoarekin. Hainbat inbertsio ikastetxe publikoetan. | 106.915,98 euros. Inversiones varias en colegios públicos. |
| 3653/2013 zenbakidun Dekretua 21.211,30 euroko zenbatekoarekin. Getxoko Landene kalean ezponda egonkortzeko eta horma sustengatzeko azterketa geoteknikoa egitea eta egikaritze-proiektua idaztea. | Decreto nº 3653/2013 por un importe de 21.211,30 euros. Estudio geotécnico y redacción del proyecto de ejecución de la estabilización del talud y apoyo del muro en la calle Landene de Getxo. |
| 3783/2013 zenbakidun Dekretua 150.000,00 euroko zenbatekoarekin. Getxo Kirolak-erako hainbat hornikuntza. | Decreto nº 3783/2013 por un importe de 150.000,00 euros. Suministros varios Getxo Kirolak. |
| 3810/2013 zenbakidun Dekretua 47.000,00 euroko zenbatekoarekin. Garbiketa eta hondakinen bilketarako zerbitzuaren prezioak berraztertzea. | Decreto nº 3810/2013 por un importe de 47.000,00 euros. Revisión de precios servicio de limpieza y recogida de residuos. |
| 3822/2013 zenbakidun Dekretua 27.821,99 euroko zenbatekoarekin. Gobela ibaiaren ondoan (Etxezuri izeneko 10. arearen parean, 1 finkan) dagoen erabilera publikoko eta komunikazioetako – portuari eta ibaiari dagozkionak- espazio libreen sistema orokorra egikaritzeak eragindako ondasun eta eskubideen Nahitaezko Desjabetzerako (Presako Prozedura) espedientearen balio justuaren ordainketa. | Decreto nº 3822/2013 por un importe de 27.821,99 euros. Pago justiprecio expediente para la expropiación forzosa (procedimiento urgente) de los bienes y derechos afectados por la ejecución del sistema general de espacios libres de uso público y de comunicaciones – portuario y fluvial, sito en el río Gobela (frente al área 10 Etxezuri, finca 1). |
| 4041/2013 zenbakidun Dekretua 68.000,00 euroko zenbatekoarekin. Ekintza zehatzak sarearen hainbat zatitan: arekak garbitzea eta berrezartzea estratetan, kolektorea konpontzea Amaia Etorbidean. | Decreto nº 4041/2013 por un importe de 68.000,00 euros. Acciones puntuales en diversos tramos de la red: limpieza y reposición de cunetas en estradas, reparación colector en Avda Amaia. |
| 4042/2013 zenbakidun Dekretua 110.000,00 euroko zenbatekoarekin. Neguriko arroan saneamenduko sarea berezia hobetzeko lanen proiektua. | Decreto nº 4042/2013 por un importe de 110.000,00 euros. Proyecto de obras de mejora de la red separativa de saneamiento separativa de la cuenca de Neguri. |
| 4165/2013 zenbakidun Dekretua 108.000,00 euroko zenbatekoarekin, Getxo Kirolak-erako hainbat hornikuntza.. | Decreto nº 4165/2013 por un importe de 108.000,00 euros. Suministros varios Getxo Kirolak. |

104.- HAINBAT DEKRETUREN BERRI EMATEA: TRANSFERENTZIAZ BALIATURIK AURREKONTUA ALDARAZI.

104.- DACIÓN DE CUENTA DE DIVERSOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.

Dekretuen berri eman da, eta Ogasuna, Kontuetako, Ekonomia, Sustapeneko, Giza Baliabideetako, Gazteria eta Euskarako Informazio Batzordeak proposatuta, Osoko Bilkura transferentzien bidezko aurrekontuaren aldaketari dekretu hauen jakinaren gainean geratzen da:

Dada cuenta de los Decretos, y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara el Pleno queda enterado de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante el uso de transferencias:

3530/2013 zenbakidun Dekretua 2.100,00 euroko zenbatekoarekin. Udal ibilgailuentzako erregaiaren hornikuntzarako kontratuaren gehikuntza, BEZ aldaketagatik.

Decreto nº 3530/2013 por un importe de 2.100,00 euros. Incremento por modificación IVA contrato suministro de carburante para vehículos municipales.

3577/2013 zenbakidun Dekretua 20.000,00 euroko zenbatekoarekin. Udal Egoitzari transferentzia, 2013ko Aurreporiketuan jasotako gastu arruntak finantzatzeko.

Decreto nº 3577/2013 por un importe de 20.000,00 euros. Transferencia a la Residencia Municipal para financiar gastos corrientes recogidos en el Anteproyecto 2013.

3809/2013 zenbakidun Dekretua 70.100,00 euroko zenbatekoarekin. Kale garbiketa eta hondakinen bilketarako zerbitzuaren prezioak berraztertzea.

Decreto nº 3809/2013 por un importe de 70.100,00 euros. Revisión de precios de los servicios de limpieza viaria y recogida de residuos.

4113/2013 zenbakidun Dekretua 11.451,20 euroko zenbatekoarekin. Turismoaren harrera eta informaziorako zerbitzuak IKT tresnak ezartzea.

Decreto nº 4113/2013 por un importe de 11.451,20 euros. Implantación de herramientas TIC en el servicio de acogida e información turística.

4246/2013 zenbakidun Dekretua 5.000,00 euroko zenbatekoarekin. WANTED 2013 diru-laguntzak.

Decreto nº 4246/2013 por un importe de 5.000,00 euros. Subvenciones WANTED 2013.

HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA

URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE

105.- TOKIKO GOBERNU BATZAK
2013-04-30EAN HARTUTAKO 170.
ERABAKIAREN ALDERAKO
AZALDUTAKO ALEGAZIOEN
GAINEAN EBAZTEKO
PROPOSAMENA. 12-
ATXEKOLANDETA AREAKO
ATXEKOLANDETA KALEKO 18-20
ZENBAKIETAKO ERAIKINENTZAT
PARATUTAKO XEHETASUNEZKO
AZTERKETA BEHIN-
BEHINGORAKO ONETSI IZAN DA.
BAITERE, HURA BERA BEHIN
BETIKOTZAT ONESTEKO
PROPOSAMENA.

Proposamena irakurri ondoren, bozkatu eta onartu egiten da EAJ-PNV Taldearen aldeko 10 boto eta PP, BILDU eta PSE-EE Taldeen 14 abstentzio-boto lortzean.

Ondorioz Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumena Informazio Batzordeak proposatuta, honako hau erabaki zen:

LEHENENGOA.-

I.- Espedientean dauden txostenak betez, igorriko direnak, JAVIER CHAVARRI BASTERRA eta JAVIER TELMO CHAVARRI LEZAMA jaunek 2013-04-30ean Toki Gobernu Batzarrak hartutako 170. erabakiaren aurrean egindako alegazioak ebatzea. Haren bidez, hasiera batean onartu egin zen RAMÓN ANASAGASTI GUEZURAGA jaunak "L. ANASAGASTI, S.A.I." merkataritza-sozietatearen izenean eta ordezkari izan zuten Xehetasun Azterketa Atxekolandeta kaleko 18 eta 20. zenbakietarako (12-"Atxekolandeta" Area).

Horrenbestez, ondorioztatutako alegazioaren zati bat baiesten dira; batetik, I. blokearen gehieneko lerrokatzearen

105.- PROPUESTA DE RESOLUCIÓN
DE LAS ALEGACIONES
FORMULADAS FRENTE AL ACUERDO
Nº 170, ADOPTADO POR LA JUNTA
DE GOBIERNO LOCAL EL 30.04.2013,
POR EL QUE FUE APROBADO, CON
CARÁCTER INICIAL, EL ESTUDIO DE
DETALLE., PARA LOS Nº 18 Y 20 DE LA
C/ATXEKOLANDETA (AREA Nº 12-
"ATXEKOLANDETA") Y
APROBACIÓN DEFINITIVA DEL
MISMO.

Tras darse lectura a la propuesta es sometida a votación siendo aprobada al obtener 10 a favor PNV, 14 abstenciones PP, BILDU, PSE-EE.

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios y Medio Ambiente se acordó:

PRIMERO.-

I.- Resolver, de conformidad con los informes obrantes en el expediente, de los que se dará traslado, las alegaciones formuladas por D. JAVIER CHAVARRI BASTERRA y D. JAVIER TELMO CHAVARRI LEZAMA frente al acuerdo nº 170, adoptado por la Junta de Gobierno Local el 30.04.2013, por el que fue aprobado, con carácter inicial, el Estudio de Detalle presentado por D. RAMÓN ANASAGASTI GUEZURAGA, en nombre y representación de la mercantil "L. ANASAGASTI, S.A.I.", para los nº 18 y 20 de la c/Atxekolandeta (Area nº 12-"Atxekolandeta").

De este modo, se estiman parcialmente las alegaciones deducidas, en lo referente a la modificación de la alineación máxima del

aldaketari dagokionean, Belrespiro Etxea izena duen familia bakarreko fatxadaren planoarekin lerrokatuta geratuko dena; bestetik, II. blokerako maldari dagokionean, 23,90 metrotara geratuko dena, aurreko kota 24,50 metrokoa zenean, lagapen eta urbanizazioko betebeharren birraztertzearekin udal-zerbitzu teknikoek egindako txostenen terminoetan.

II.- RAMÓN ANASAGASTI GUEZURAGA jaunak "L. ANASAGASTI, S.A.I." merkataritza-sozietatearen izenean eta ordekaritzan aurkeztu zuen Xehetasun Azterketa behin betikoz onartzea Etxekolandeta kaleko 18-20 eraikinetarako, 12-"Atxekolandeta" Area, aurreko ataleko alegazioen ebazpenetik sortutako zuzenketetatik eta hasierako onarpenari egindako ñabardurekin, dagokion Testu Bateginean jasoko direnak.

III.- Erabaki hau Bizkaiko Lurralde Historikoaren Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

IV.- Interesdunei jakinaraztea egokiak diren errekurtsoak adieraziz.

BIGARRENA.-

Alkatetza Udalburutzari erabaki horiek gauzatzeko beharrezkoak diren nahi beste ebazpen hartzeko eskumena ematea.

MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

106.- PP ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: MAIDAGANGO

bloque I, que quedará alineada con el plano de la fachada de la vivienda unifamiliar denominada Casa Belrespiro; así como en lo referente a la rasante para el bloque II, que quedará fijada a cota 23,90 m, frente a la cota anterior de 24,50 m; con reconsideración de las obligaciones de cesión y urbanización en los términos de los informes emitidos por los servicios técnicos municipales.

II.- Aprobar, con carácter definitivo, el Estudio de Detalle presentado por D. RAMÓN ANASAGASTI GUEZURAGA, en nombre y representación de la mercantil "L. ANASAGASTI, S.A.I.", para los inmuebles 18-20 de la c/ Atxekolandeta, Area nº 12- "Atxekolandeta", con las rectificaciones derivadas de la resolución de las alegaciones del apartado precedente y las matizaciones apuntadas a la aprobación inicial, que habrán de ser incorporadas en el oportuno Texto Refundido.

III.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia del Territorio Histórico de Bizkaia.

IV.- Notificarlo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

SEGUNDO.-

Facultar a la Alcaldía Presidencia para la adopción de cuantas resoluciones sean necesarias para la ejecución de estos acuerdos.

MOCIONES E INTERPELACIONES

106.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/ INMEDIATA URBANIZACIÓN DEL

PARKEAN BEHARREKO
HIRIGINTZA LANAK BERTATIK
EGITEA.

PARQUE DE MAIDAGAN.

Jesus Toca jaunak mozioa irakurtzen du.

Jesús Toca da lectura a la moción.

Ana Helguera andreak esku hartzen du xedapenezko atalak ez duela edukirik adierazteko, izan ere, Gobernu-Taldeak kontratazio-espeditentea jada hasi du. Alderdi Popularrak kreditu-geldikinen erabilgarritasunari dagokionez estatutik ezarritako araudiari egotzi dakizkiokeen atzerapenak gertatu direla aitortzen du eta, baita, 2013ko uztailean arte zain egon behar izan dela ere Bizkaiko Batzar Orokorrek geldikin horiek inbertsioetara bideratzea ahalbidetzen duen foru-araua onartzeko. Kontratu honi Rajoy-ren Gobernuak langileak kontratatzeke ezarritako murrizketek ere eragin diote. Zailtasun horiek guztiak izanagatik, Gobernu-Taldearen ardurari esker espeditentea abian dagoela adieraziz amaitzen du.

Ana Helguera interviene para indicar que la parte dispositiva carece de contenido ya que el Equipo de Gobierno tiene iniciado el expediente de contratación. Reconoce que se han producido retrasos achacables a la normativa que el Partido Popular ha interpuesto desde el Estado en relación a la disponibilidad de los remanentes de crédito y ha tenido que esperarse hasta julio del 2013 en la que las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado un norma foral que posibilita destinar los remanentes a inversiones. También ha afectado a este contrato las restricciones que el Gobierno de Rajoy ha impuesto para la contratación del personal. Finaliza indicando que pese a todas estas dificultades el expediente está en marcha gracias a la diligencia del Equipo de Gobierno.

Bingen Saitua jaunak trenbide-pasagunea kentzeko Madaigan kaleko bizilagunek egindako borroka eta lurperatzeak iraun duen bitartean jasan behar izan dituzten eragozpenak ere gogora ekartzen ditu. Une honetan, bizilagunen iritzia kontuan hartu ez duen proiektu bat planteatzen ari dira; beraz, BILDU Taldeak horrelako proiektuak zehazteko modua kritikatzeko du. Amaitzen du, adieraziz, obretan izandako atzerapenek horren inaugurazioa tokiko hauteskundeetan ospatze-egunera hurbilduko dutela eta horrek Gobernu-Taldearen jarrera politikoa gisa ez duela harritzen. Bere taldea mozioaren bozketan abstenitu egingo dela adieraziz amaitzen du.

Bingen Saitua recuerda la lucha de los vecinos de Maidagan por suprimir el paso a nivel y también las molestias que han tenido que sufrir durante su soterramiento. En estos momentos se está planteando realizar un proyecto que no ha tenido en cuenta la opinión vecinal por lo que BILDU manifiesta su crítica con la forma de determinación de este tipo de proyectos. Finaliza indicando que el retraso en las obras acercará su inauguración a las elecciones locales, lo cual no le extraña como actitud política del Equipo de Gobierno. Manifiesta finalmente la abstención de su grupo en la moción.

Luis Almansa jaunak adierazten du Talde Sozialistak alde bozkatuko duela

Luis Almansa manifiesta que el Grupo Socialista votará a favor porque está con

bizilagunekin bat egiten baitu eta parkea amaitzea nahi dute nahiz eta Gobernu-Taldearen azalpenak ulertu, Rajoy-ren Gobernuak hartutako neurriek geldikinak erabiltzea ezinezko bihurtu baitute, Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioaren kexa baten harian aldatzea lortu den arte; horrek, ordea, atzerapen handia eragin du.

Jesus Toca jaunak adierazten du proiektua milioi bat eurokoa dela eta horietatik 800.000€ Bizkaiko Garraio Partzuergoak ematen dituela. Talde Popularrak apirilaz geroztik gaiaz galdezka dabilela gogorarazten du eta atzerapena BEZaren igoerak eragindako zuzenketen ondorioa dela adierazi zaie, ulertzen ez dutena, eta, baita, langile-gabeziaren ondorioa ere. Udalak langileen kontratazioari dagokionez murrizketen dekretu bat onartua duela gogorarazten du eta, hala eta guztiz ere, 2012an, 38 lagun kontratatu zirela eta, 2013an, dagoeneko, 19 lagun kontratatu direla; beraz, borondate-politikoak egon izan balitz proiektua aurreratuko zela uste du.

Bingen Saitua jaunak adierazten du BILDU Taldeari Rajoy-ren Gobernuak mugak jarri izana ez zaiola aski iruditzen, nahiz eta muga horiek badaudela aitortzen duen; eta Gobernu-Taldeari ausardiaz eta buru-argitasunez jokatzeko eskatzen dio, beste herri-administrazioetan ari diren gisan.

Ana Helguera andreak adierazten du pleguak prestatzen ari direla, baina araudi murriztailea prozesuak are gehiago zailtzen ari dela eta harriturik dagoela Talde Popularrak Udalari araudi horren betetze zorrotza ez eskatzearekin eta jarduera alternatiboak planteatzearekin.

Jesus Toca jaunak kontratazioa mugatzen

los vecinos y quieren que el parque se acabe aunque entiende las explicaciones del Equipo de Gobierno ya que las medidas del Gobierno de Rajoy han imposibilitado utilizar los remanentes hasta que a partir de la queja de la Federación Española de Municipios y Provincias se ha conseguido modificar, pero esto ha supuesto un retraso importante.

Jesús Toca indica que el proyecto es de un millón de euros de los que 800.000€ aporta el Consorcio de Transportes de Bizkaia. Recuerda que el Grupo Popular viene desde abril preguntando por el tema y se les ha indicado que el retraso se debe a correcciones motivadas por el incremento del IVA, cuestión que no entiende, y luego se achacó también a la falta de personal. Recuerda que el Ayuntamiento tiene aprobado un decreto de restricciones en materia de contratación de personal y que pese a ello en el año 2012 se han contratado 38 personas y 19 personas en lo que va de año 2013 por lo que estima que si hubiera habido voluntad política se hubiera adelantado el proyecto.

